



Bergarako
Udala

Bergaran, bi mila eta hemeretziko azaroaren 22an, ondorengoak

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakaria, Bergarako San Martin Plaza, z/g-ean egoitza izan eta P- 2007900-J I.F.K. zenbakia duen Bergarako Udalaren izenean.

Beste aldetik, Maialen Sorzabalbere Ajuria, NA zenbakia duena eta) bizi dena, BARREXERKA ELKARTEA (IFK G75214767), ordezkatur.

Adjudikatzailerak zein adjudikazio-hartzaileak ados egonik, ondorengo klausulak dituen kontratua hitzartzen dute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- BARREXERKA ELKARTEAK, Euskararen Egunean, 2019ko abenduaren 3an, asteartea, arratsaldeko 19:00etan, Bergarako Seminarixoan Barrexerka emankizuna eskaintzeko konpromisoa hartzen du 1.500,00 €tan (BEZa salbuetsita).

Kontratuaren zenbateko horretan kontzeptu guztiak daude sartuta, besteak beste, ondorengoak:

- Taldearen eta honek kontratatu dezakeen personal teknikoaren lansariak, gizarte segurantzako gastuak, eta baita horien dietak eta alojamendu gastuak ere, horrelakorik egonez gero.
- Ikuskizunerako beharrezko diren pertsonalaren eta materialen garraio gastuak.
- Ikuskizuna aurrera eramateko beharrezko diren elementu guztiak.

BIGARRENA.- Bergarako Udalak ondorengo konpromisoak hartzen ditu:

- 1.500,00 € (BEZa salbuetsita) ordaintzea BARREXERKA Elkarteari hitzarmen honetan jasotzen den ekitaldiari dagokion faktura aurkeztu ondoren. Ordainketa transferentzia bidez egingo da, fakturan jarritako kontu korrante zenbakian. Hala eskatuz gero, dagokion kuota ordaintzea Sociedad General de Autores-eri. Bere gain hartzea gerta daitekeen edozein gertakari, mota eta zenbaterainokoa edozein izanda ere. Halere, taldearen den materialen edo langileren batek hirugarrenei kalteak eginez gero, taldeak erantzungo du kalte horien aurrean. Ikuskizunaren publizitateaz arduratzea.
- Aparkalekua.
- Aretoko baliabide teknikoak taldearen eskura jartzea.



HIRUGARRENA: Ezingo da aldatu ikuskizunaren eguna, lekua eta ordua.

LAUGARRENA: Taldeari ez dagokion arrazoiren batengatik ikuskizuna bertan behera utzi beharko balitz eta taldeak muntaia hasi ez balu, Bergarako Udalak, 750,00 € (KATXETAREN ERDIA) ordainduko ditu (Kontzeptu guztiak barne) dagokion faktura aurkeztu ondoren eta bi hilabeteko epearen barruan, baldin eta alde zuzenetik bi aldeen arteko akordiorik lortzen ez bada.

Ikuskizuna muntatuta egongo balitz, berriz, Bergarako Udalak 1.500,00 € (KATXETA OSOA) ordainduko ditu (Kontzeptu guztiak barne) dagokion faktura aurkeztu ondoren, baldin eta alde zuzenetik bi aldeen arteko akordiorik lortzen ez bada.

Era berean, taldeari dagokion arrazoiren batengatik ikuskizuna bertan behera geldituko balitz, Bergarako Udalak 1.500,00 € (KATXETA OSOA) jasotzeko eskubidea izango du kalte-ordain moduan, baldin eta alde zuzenetik bi aldeen arteko akordiorik lortzen ez bada.

BOSGARRENA: Parte batek kontratu honetan adierazitako betebeharrak betetzen ez baditu, besteak bete arazteko eskubidea izango du edo kontratua bertan behera uztekoa, betiere ez-betetze horrek sor ditzakeen kalte-ordainen ekintzen eragozpenik gabe.

SEIGARRENA: Kontratu administratibo honetan jasota ez dagoen guztian ondorengo arautegien xedapenak aplikatuko dira:

- Toki Jaurbideko Oinarrien 7/1985 Legea, apirilaren 2koa; eta 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, apirilaren 18koa, Toki Jaurbidearen alorrean indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua onartzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legea onartzen duena; eta lege horrek xedatzen duenaren aurka ez doazenean:
 - 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
 - Administrazio Publikoaren Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bitartez onartua.
- Eta besterik ezean, zuzenbide administratiboko bestelako xedapenak, eta halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

Eta adostasun frogagisa, bi aldeek dokumentu hau sinatzen dute goian aipatutako egun eta lekuan.



BERGARAKO UDALA
Gorka Artola Alberdi

BARREXERKA ELKARTEA
Maialen Sorzabalbere Ajuria